

AURREPROIEKTUA: ___/2019 FORU ARAUA, ___ren ___(e)koa, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa.

ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL___/2019 de___ de _____ de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Erabat desberdinak dira gaur egungo errealitate sozial, ekonomiko eta juridikoa eta, beste erakunde batzuekin batera, hirugarren sektoreko protagonista nagusi diren irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako eta haiekin zuzenean lotutako mezenasgo-jardueretako zerga-araubide berezia ezarri zen garaiaren errealitatea. Zehazki, araubide berezi hori, Bizkaiko Lurralde Historikoan lehenengoz, otsailaren 5eko 5/1995 Foru Arauren bidez arautu zen, zeina Fundazioen eta Herri-Onurako Elkarleen Zerga-Araubideari eta Zudu Orokorreko jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga-Pizgarriei buruzkoa den.

La realidad social, económica y jurídica en la actualidad difiere sustancialmente de la existente en el momento del establecimiento de un régimen fiscal especial para las entidades sin ánimo de lucro, protagonistas junto con otro tipo de entidades del Tercer Sector, así como para las actividades de mecenazgo directamente vinculadas al mismo, que se produjo por primera vez en el Territorio Histórico de Bizkaia mediante la aprobación de la Norma Foral 5/1995, de 5 de febrero, de Régimen Fiscal de Fundaciones y Asociaciones de Utilidad Pública y de Incentivos Fiscales a la Participación Privada en Actividades de Interés General.

Sektorea etengabe eta nabarmen hazi da, bai gure lurraldean, bai Europar Batasun osoan. Ondorioz, haren garrantzi sozial eta ekonomikoa ere nabarmen igo da, eta Europan ongizateari egiten dion ekarpena inork ez du zalantzan jartzen. Gure Autonomia Erkidegoan Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea onartu da ere. Haren bidez, interes publikorako lan egiten duen ekimen pribatu horren zati baten ezaugarriak eta eraketa ezartzen dira.

El crecimiento constante y notable de este sector, no sólo en nuestro ámbito territorial sino en el conjunto de la Unión Europea, hace que su importancia desde un punto de vista social y económico sea realmente significativa y que su contribución al bienestar público en Europa sea incuestionable en la actualidad. En nuestra Comunidad Autónoma, incluso, se ha promulgado la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, que caracteriza y configura una parte de esa iniciativa privada dedicada al interés público.



Agintari publikoak eurak dira sektoreak azken bi hamarkadetan bizi izan duen bultzadaren sustatzaile nagusiak; izan ere, jabetuta daude, batetik, beren konpromisoak eta betebeharrak betetzeko, egungo gizartearen interes orokorreko helburu ugari erantzuteko hainbat eratako zailtasunak daudela eta, bestetik, helburu horiek betetzeko sektore pribatuaren partaidetzak gastu publiko gutxiago sortzen duela. Hori jakinda, beren erantzunkidetasuna onartzen dute politika publikoak erabilia —fiskala, besteak beste— halako erakundeei tratamendu berezia emateko pizgarrien bidez.

Foru-arau hori onartu eta hamarkada bat igarota, gizartea are kontzientziatuago zegoen sektore publikoaren zeregina osatzeko beharrezkoa zela sektore pribatuak interes orokorreko jardueretan zuen partaidetza handitzea. Horrek irabazi-asmorik gabeko erakunde-forma berriak agertzea eta ugaltzea ekarri zuen, bai eta herritarrek erakunde horiei ordura arte emandako laguntza handitzea ere. Orduko errealitate ekonomiko eta sozial berriari erantzun egokiago bat eman nahian, hasierako zerga-araubide hori eguneratu egin zen, Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren bidez.

Arautze horrek bultzada handia eman zion halako erakundeen etorkizunari; izan ere, pizgarri fiskalen katalogoa eta tributu arloko tresna juridikoak birformulatu eta hobetu zituen, eta, haien bidez, sustatu zen norbanakoek zein enpresek agintari

Los propios poderes públicos se han convertido en los promotores principales del impulso que el sector ha experimentado en estas dos últimas décadas, ya que, conscientes tanto de las dificultades de diversa naturaleza a las que se enfrentan para, en cumplimiento de sus compromisos y obligaciones, atender plenamente la diversidad de fines de interés general de la sociedad actual, así como del menor gasto público que origina la participación del sector privado en la consecución de dichos fines, reconocen su corresponsabilidad mediante la utilización de las políticas públicas, entre ellas la fiscal, a fin de dar un tratamiento diferenciado e incentivador a este tipo de entidades.

Una década después de la aprobación de dicha Norma Foral, el aumento de la conciencia social acerca de la necesidad de incrementar la participación del sector privado en las actividades de interés general complementario al sector público originó no sólo la aparición y auge de nuevas formas organizativas de carácter no lucrativo, sino también el incremento en el apoyo ciudadano a todas ellas. A fin de dar una respuesta más adecuada a aquella nueva realidad económica y social, el régimen fiscal inicial fue actualizado y reforzado mediante la aprobación de la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y del mecenazgo.

Esta regulación supuso un importante impulso a futuro de este tipo de entidades, reformulando y mejorando el catálogo de incentivos fiscales y los instrumentos jurídico-tributarios que fomentan que, tanto las personas individuales como las empresas,



publikoekin batera jardutea gizartearen interes orokorrak betetzen. Gainera, foru-arau horrek indartu egin zuen halako helburuak lortzen irabazteko asmorik gabeko erakundeek egin izan duten ekarpen baliotsuaren aitortzea, haien zerga-araubide berezia hobetuz.

Indarraldian zehar, 1/2004 Foru Araua maiz aldatua izan da, batez ere haren arauketa egokitzeko –beharrezkoa izan denean– pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak, sozietateen gaineko zergak eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak epealdi horretan izan dituzten aldaketetara.

Hura ezarri zenetik hamalau urte igaro ondoren, zenbait faktorek hausnarketa berri bat eragin dute halako erakundeek dagokien fiskalitatearen konfigurazioari buruz. Hausnarketa horren ondorio da foru-arau hau.

Hasteko, irabazi-asmorik gabeko erakundeen EAEko esparru juridiko arautzailea bera ere berrikusi eta eguneratua izan da, 2004. urtetik-Gaur egun, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Lege berriak osatzen dute esparru juridiko hori. Arauketa substantiboak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek dagokien fiskalitateak elkarren artean duten mendetasunaren ondorioz, erakunde horien tributazioak izaera substantiboko zenbait betekizun fiskal bete behar ditu eta erakundeek dagokion erregistroan inskribatuta egon behar dute. Hori kontuan hartuta, argi dago komeni dela zerga-

colaboren con los poderes públicos en el cumplimiento de los intereses generales de la sociedad. Además reforzó el reconocimiento de la valiosa contribución que para el logro de dichos fines vienen efectuando las entidades sin fines lucrativos, mejorando su régimen tributario especial.

Durante su vigencia, esta Norma Foral ha sido modificada en múltiples ocasiones fundamentalmente con la finalidad de alinear su regulación, en la medida en que ha sido necesario, con las profundas reformas que han experimentado el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto sobre la Renta de No Residentes durante dicho periodo.

Catorce años después de su establecimiento, diversos factores hacen necesaria una nueva reflexión sobre la configuración de la fiscalidad que afecta a este tipo de entidades, que tiene como fruto la presente Norma Foral.

En primer lugar, el propio marco jurídico regulador de las entidades sin ánimo de lucro en el País Vasco también ha sido revisado y actualizado desde 2004, encontrándose regulado en la actualidad mediante la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones del País Vasco, así como por la más reciente Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco. La interdependencia entre la regulación sustantiva y la fiscalidad que afecta a este tipo de entidades, al supeditarse su tributación al cumplimiento de una serie de requisitos fiscales de inspiración sustantiva y a la inscripción de la entidad en el registro correspondiente, aconseja indudablemente la actualización y revisión de los requisitos que el régimen fiscal



arabidea aplikatzeko betekizunak eguneratzea eta berrikustea.

Bestalde, egungo joera globalizatzaileak eta, harekin batera, ondoriozko liberalizazio ekonomikoa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen jardunaren eskaera eta aitorten soziala funtseko osagai dira erakundeon fiskalitatearen konfigurazio berrian. Bistan da: gaur egun, irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez dute mugatzen beren jarduna tokiko esparrura. Aitzitik, haien jarduerak eta finantzaketa-bilaketak ez dute lurralde-mugarik, eta zabaltze-izaera horretan ondo bereizitako alderdi bi daude. Batetik, mugaz haraindiko mezenasgoa deitu geniezaiokeena dago, hau da, ez dago mugarik enpresek edo herritarrek beren ekarpenen bidez irabazi-asmorik gabeko erakundeen interes orokorren lorpenean laguntzeko hartzen dituzten erabakietan. Bestetik, erakundeek eurek garatzen dituzten jardueretan ere ez dago lurralde-mugarik gaur egun. Beraz, erakundeok beren jarduketa-eremua zabaltzen ari dira, eta dauden lurraldeko mugak gainditu dituzte, haietatik kanpoko ekintzak egiteko; edo globalak izateko jaio dira, eta, beraz, mundu mailan dihardute.

Baina, nahiz eta erakunde hauen funtzionamendua globalizatu den eta Europar Batasunaren barruko lurralde-mugak desagertu diren, ez da gertatu prozesu paralelo bat EBko estatuak ekonomia-, zerga- eta merkataritza-arloetan ezarritako barrerak desagerrarazteko. Hala, bada, Europar Batasunaren errealitate sozial eta

exige para su aplicabilidad.

Por otra parte, las tendencias globalizadoras actuales, junto con la consiguiente liberalización económica y la demanda y el reconocimiento social de la actuación de las entidades sin ánimo de lucro, son elementos determinantes en la nueva configuración de su fiscalidad. Resulta obvio que a día de hoy las entidades sin ánimo de lucro no circunscriben su actuación al ámbito doméstico, sino que su actividad y la obtención de su financiación no conocen fronteras territoriales, distinguiendo en su carácter expansivo dos aspectos bien diferenciados. Por un lado, nos encontramos con el que podríamos denominar mecenazgo transfronterizo o inexistencia de fronteras en las decisiones que adoptan las empresas o la ciudadanía a la hora de contribuir con sus aportaciones al logro de los intereses generales que las entidades sin ánimo de lucro persiguen. Por otro, las actividades que las propias entidades desarrollan tampoco conocen límites territoriales en la actualidad. Así, estas entidades o bien están ampliando su ámbito de actuación, superando las fronteras del territorio al que pertenecen para realizar acciones fuera de las mismas, o bien son entidades que nacen con vocación global y que, en consecuencia, operan a nivel mundial.

Sin embargo, la globalización en el funcionamiento de estas entidades, así como la inexistencia en la actualidad de barreras territoriales dentro de la UE, no ha ido acompañada de un proceso paralelo de desaparición de las barreras fiscales, económicas o mercantiles impuestas por los Estados Miembros que la componen. Pues bien,



ekonomikoaren beste gai batzuetan bezala, errealitate hori bizkorrago ari bilakatzen hura arautzen duen legeria baino, zeinak oraindik ere mantentzen dituen merkatu librearen funtzionamendu egokirako eta haren funtsezko askatasunetarako oztopo diren legezko barrera batzuk.

Horregatik, Europar Batasunean kapitalen zirkulazio librean dauden oztopo batzuk – egungo zerga-araubide bereziak sortzen dituenak– kentzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-386/04 (Centro di Musicologia Walter Stauffe) eta C-318/07 (Persche) gaietan ezarritako jurisprudenzia-ildoari jarraituz, foru-arau honek zabaldu egiten die araubide fiskal hau irabazi-asmorik gabeko erakunde ez-egoiliarrei, eta, orobat, bidea irekitzen die Bizkaiko Lurralde Historikoaren araudi fiskala aplikatzen duten pertsona fisiko eta juridiko zergadunek egindako mezenasgoaren onuradun izateko (pizgarri fiskala duten mezenasgoa), baldin eta erakundeok betetzen badituzte irabazi-asmorik gabeko erakunde egoiliarrei eskatzen zaizkien betekizunak, eta zergadun horiek justifikatzen badute irabazi-asmorik gabeko erakunde ez-egoiliarrei egindako dohaintzak eta ekarpenak benetan egin direla.

Zerga-araubide hau Europar Batasunaren ordenamendu juridikora egokitzeko asmo horrekin batera, foru-arau honek beste helburu nagusi bat lortu nahi du: irabazi-asmorik gabeko erakundeen araubide fiskal bereziari beste bultzada bat eman nahi zaio. Orobat, erakundeon finantzaketan laguntzen duten pertsona fisiko zein juridikoen mezenasgoa bultzatu nahi da, aintzat hartzeko haiek guztiek

como ocurre en muchos otros aspectos de la realidad económica y social de la UE, dicha realidad evoluciona a un ritmo más rápido que la legislación que la rige, que sigue manteniendo ciertas barreras legales que imposibilitan el óptimo funcionamiento del libre mercado y sus libertades fundamentales.

Por ello, a fin de remover ciertos obstáculos al ejercicio de la libre circulación de capitales en el espacio comunitario que aún provoca el régimen fiscal especial actual, la presente Norma Foral, siguiendo la línea jurisprudencial establecida por el Tribunal de Justicia de la Unión Europea en los asuntos C-386/04, Centro di Musicologia Walter Stauffer y C-318/07 Persche, amplía el ámbito de aplicación de este régimen fiscal a las entidades sin ánimo de lucro no residentes y, además, abre la puerta a que sean beneficiarias del mecenazgo fiscalmente incentivado por parte de los y las contribuyentes personas físicas y jurídicas que aplican la normativa fiscal del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que cumplan los mismos requisitos exigidos a las entidades sin ánimo de lucro residentes y que se justifique por parte de dichos contribuyentes la realidad y efectividad de los donativos y aportaciones de que estas entidades sin ánimo de lucro no residentes sean beneficiarias.

Junto con la mencionada alineación de este régimen fiscal con el ordenamiento jurídico comunitario, el otro gran objetivo que persigue la presente Norma Foral es dar un nuevo y significativo impulso al régimen fiscal especial de las entidades sin ánimo de lucro, así como al mecenazgo de las personas físicas y jurídicas que a través de su colaboración coadyuvan a su financiación, en reconocimiento al papel



gure gizartean betetzen duten funtseko eginkizuna, ordezkazina dena.

Foru-arau honek 49 artikulua ditu, egitura honetan banatuak: lau titulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bi, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

I. tituluan bi artikulua daude, foru-arauaren xedea eta aplikazio-eremua arautzen dituenak. II. tituluak, berriz, irabazi-asmorik gabeko erakundeei aplikatzen zaien zerga-araubide berezia ezarri eta garatzen da, eta III. tituluak mezenasgoari aplikatzen zaizkion pizgarri fiskalak arautzen ditu, haien forma eta konfigurazio guztietan. Azkenik, IV. tituluan ezartzen da nola aplikatzen zaien zerga-araubide berezia irabazi-asmorik ez duten eta interes orokorreko helburuak dituzten beste erakunde batzuei, zehazki, fundazioa edo herri-onurako elkarteak ez beste forma juridiko bat dutenei. Eta, amaitzeko, titulu berean zehazten da zer ondorio ekarriko dizkien mezenasgoaren onurak aplikatu dituzten zergadunei mezenasgoaren erakunde onuradunek araubide fiskalak ezartzen dizkien betekizunak ez betetzeak.

II. titulua hiru kapitulutan banatzen da. I. kapituluan («Arau orokorrak») xedatzen da irabazi-asmorik gabeko zer erakundek aplikatu dezaketen zerga-araubide berezia, eta, Europako Erkidegoaren Funtzionamenduari buruzko Itunak eskatzen duen kapitalak mugitzeko askatasunarekiko errespetatua betetzeko (lehen adierazi dena), beste hauek ere jotzen ditu halako erakundetzat:

primordial e insustituible que todos ellos desempeñan en nuestra sociedad.

La presente Norma Foral consta de 49 artículos, los cuales se encuentran estructurados en cuatro títulos, tres disposiciones adicionales, dos disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

El Título I dedica sus dos únicos artículos a la regulación de su objeto y al ámbito de aplicación. Por su parte, el Título II establece y desarrolla el régimen fiscal especial aplicable a las entidades sin fines lucrativos y el Título III se dedica a los incentivos fiscales, en sus diferentes formas y configuración, aplicables al mecenazgo. Por último, en el Título IV se establece la aplicación del régimen fiscal especial a una serie de entidades que careciendo de ánimo de lucro y persiguiendo fines de interés general tienen una forma jurídica diferente a la fundación o a la asociación de utilidad pública; finalmente, en este mismo Título, se determinan los efectos que, para los y las contribuyentes que hayan aplicado los beneficios fiscales del mecenazgo, produce el incumplimiento por parte de las entidades beneficiarias de mecenazgo de los requisitos que el propio régimen fiscal les exige.

El Título II se divide en tres Capítulos. En el primero de ellos, dedicado a las normas generales, se determinan cuáles son las entidades sin fines lucrativos que pueden disfrutar del régimen fiscal especial, incorporando, en cumplimiento del ya mencionado respeto a la libertad de movimiento de capitales exigida por el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, a



fundazioaren edo irabazi-asmorik gabeko elkartearen antzeko forma juridikoa duten erakundeak, Espainiako lurraldean egoitzarik izan gabe Espainiako establezimendu iraunkor baten bidez dihardutenak, edo Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparruko beste herrialde batean egoitza dutenak.

Halaber, 5. artikuluan, halako erakundeek araubide berezia aplikatu ahal izateko baldintzak birformulatzen dira, eta berriak sartu. Baldintza berrien artean, hauek azpimarratu behar dira: 5.7 artikulua xedatzen duenez, erakundeen kudeaketa desinteresatua izan behar da, artikuluko 6. zenbakian ezarritako baldintza sendotzeko, eta 11. eta 12. zenbakietan ezartzen diren baldintza berriak, kontabilitate-betebeharrei edo kontuak emateari buruzkoa. Hala, fiskalitateari gehitzen zaizkie halako erakundeei beren legeria substantiboak ezartzen dizkien eskakizunak.

II: tituluko II. kapituluan, erakunde horiek sozietateen gaineko zerga eta, hala denean, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordainketan dituzten berezitasunak arautzen dira. Arauketa hori, oro har, orain arte indarrean egon denaren jarraipentzat hartu daiteke (alde batera utzita araubide hau zergadun ez-egoiliarrei aplika dakiekeela). Baina, neurri garrantzitsu batzuk sartu dira, bi alderdi hauen arteko beharrezko orekari erantzuten diotenak: batetik, halako erakundeen zerga-araubidearen hobekuntza (araubide horrek tributu-karga handienetik salbuesten ditu, forma juridikoagatik, irabazi-asmorik ez izategatik eta interes orokorreko helburuak betetzeagatik) eta, bestetik, tributu-

entidades con una forma jurídica análoga a la fundación o a la asociación sin ánimo de lucro que, no siendo residentes en territorio español, operen en el mismo a través de un establecimiento permanente o, en otro caso, residan en países miembros de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo.

Asimismo, en el artículo 5 se reformulan e introducen nuevos requisitos a cumplimentar por dichas entidades a fin de que puedan acogerse al régimen especial. Así, entre los nuevos requisitos, destacan los relativos a la exigencia en el artículo 5.7º de una gestión de estas entidades que sea desinteresada, como refuerzo al requisito recogido en el número 6º del mismo artículo, o la incorporación en sus números 11º y 12º de requisitos relativos al cumplimiento de obligaciones contables o de rendición de cuentas, incorporando a la fiscalidad requisitos que son exigidos a este tipo de entidades por su legislación sustantiva.

En el Capítulo II del Título II, se regulan las especificidades en la tributación de estas entidades por el Impuesto sobre Sociedades y, en su caso, por el Impuesto sobre la Renta de No Residentes. Si bien, en líneas generales, esta regulación resulta continuista en cierta medida con la vigente hasta ahora, con la salvedad de la aplicabilidad de este régimen a contribuyentes no residentes, se introducen medidas notables que responden al necesario equilibrio entre la mejora del régimen de tributación de estas entidades, que les libera de la mayor parte de su carga tributaria en atención a su forma jurídica, a su carácter no lucrativo y al cumplimiento de fines de interés general, y el establecimiento de un mecanismo de control previo por parte de la



administrazioak aurretiko kontrol-mekanismo bat ezarri beharra, araubideak berak ezartzen dizkien baldintzak betetzen dituzten zaintzeko, eta, azken finean, tratamendu fiskal hori erabil dezaketen erakundeen egokitasuna bermatzeko.

Erakunde horien tratamendu fiskalari dagokionez, nabarmendu behar da atalaseak igo direla. Atalase horien barruan, salbuetsitako ustiapen ekonomikoen laguntza-jarduera edo jarduera osagarri jakin batzuk ere salbuetsizat joko dira, eta, ondorioz, erakundearen diru-sarreraren bolumen osoa 100eko 25etik 100eko 30era igaroko da. Halaber, garrantzi txikiko jardueren kasuan, diru-sarreraren bolumenaren muga 30.000 euro izan da orain arte; aurrerantzean, berriz, 50.000 izango da. Azpimarratu beharreko beste neurri batzuen artean, hauek aipatuko ditugu: salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei aplikatu beharreko zerga-tasa puntu ba jaitsi da (100eko 9 izango da), koherentziaz jokatzeko gainerako erakundeei sozietateen gaineko zerga dela-eta aplikatzen zaien zerga-tasarekin, zeina 2018an onartutako aldaketa baten ondorioz gutxitu den; eta, aurrerantzean, salbuetsi gabeko jardueren ustiapen-soberakina deduzitzeko aukera egongo da, soberakin hori ez bada aplikatzen halako erakundeei interes orokorreko helburuak betetzearen ondorioz sortutako galerak konpentsatzeko.

Amaitzeko, II. kapituluak zerga-araubide berezia aplikatu aurreko kontrol-mekanismo bat ezartzen du, eta erakundeon berezko betebeharrak jakin batzuk (hala nola memoria ekonomiko bat egin eta aurkeztu beharra – 5.12 art.– eta erantzukizunpeko adierazpena

administración tributaria de los requisitos que el propio régimen les exige, a fin de garantizar la idoneidad de las entidades que tienen acceso a dicho tratamiento fiscal.

En cuanto a las mejoras de su tratamiento fiscal, destacan la elevación de los umbrales dentro de los cuales determinadas actividades de naturaleza auxiliar o complementaria de las explotaciones económicas exentas se van a considerar también exentas, pasando del 25 por 100 al 30 por 100 del volumen de ingresos total de la entidad, así como la elevación del límite de volumen de ingresos de 30.000 a 50.000 euros, para la consideración de actividades de escasa relevancia. Otras medidas dignas de mención son la bajada en un punto del tipo impositivo aplicable a las explotaciones económicas no exentas, que pasa a ser el 9 por 100, en coherencia con la reducción de tipos impositivos en el Impuesto sobre Sociedades aplicables al resto de entidades tras la reforma de este impuesto aprobada en 2018, o la posibilidad de deducir el excedente de explotación de las actividades no exentas siempre que sea aplicado a compensar las pérdidas que se les produzcan a estas entidades como consecuencia del cumplimiento de los fines de interés general que persiguen.

Para finalizar, este Capítulo II establece un nuevo mecanismo de control previo a la aplicación del régimen especial de tributación, así como sanciones específicas por incumplimiento de ciertas obligaciones propias de estas entidades, tales como son, la



aurkeztu beharra) ez betetzearen ziozko zehazpen espezifikoak arautzen dira.

Araubidea aplikatzeko berritasunen artean, hura eskatu beharra ezartzen da; hala, tributuan administrazioak bermatu ahal izango du araudi fiskalak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten erakundeek aplikatzen dutela. Eskaera egiteko prozedura eta onarpena erregelamenduz arautuko badira ere, foru-arauek ezartzen du zer dokumentazio aurkeztu behar duten zergadunek araubide berezia aplikatzeko, eskabidearekin batera. Dokumentazioa hau da: eratze-eskritura edo -akta, erakundearen estatutuak, haren helburuen azalpen-memoria bat, dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko agiria, eta 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituelako erantzukizunpeko adierazpen bat, erakundearen legezko ordezkari guztiek sinatua.

Azkenik, II. tituluko III. kapituluan, tokiko zergekin lotutako salbuespenak jaso dira; aurreko araudiarekin konparatuta, ez dago berritasun handirik.

III. titulua mezenasgori emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da, eta lau kapitulutan banatzen da. Titulu horretan dagoen mezenasgoari buruzko arauketak lehengo pizgarri-sistemaren alderdi batzuk gordetzen ditu, baina aldaketa garrantzitsuak sartu ditu, sektore pribatuaren konpromisoa sustatzearen eta aintzatestearen ondorioz, bai eta aurreko

elaboración y presentación de la memoria económica exigida en el artículo 5.13º o la presentación de la declaración responsable.

En cuanto a las novedades para la aplicación del régimen, se establece su carácter rogado lo que permitirá a la Administración tributaría garantizar que la aplicación del mismo se efectúa por parte de entidades que cumplen con todos los requisitos que la normativa fiscal exige. Si bien, el procedimiento de solicitud y reconocimiento se remite a desarrollo reglamentario, la Norma Foral establece la documentación que deberá ser presentada por los y las contribuyentes junto con la solicitud de aplicación del régimen especial, que comprenderá la escritura o acta de constitución, los estatutos de la entidad, la memoria explicativa de sus fines, la acreditación de estar inscritas en el registro correspondiente, así como una declaración responsable suscrita por los y las representantes legales de la entidad sobre el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 5 de la misma.

Finamente, en el Capítulo III de este Título II se recogen las exenciones en relación con los tributos locales, sin que se incorporen novedades destacables frente a la normativa anterior.

El Título III está dedicado a los incentivos fiscales al mecenazgo y consta de cuatro Capítulos. La regulación del mecenazgo contenida en el mismo se inspira de nuevo en el modelo previo de incentivación, a la vez que incorpora notables cambios derivados del impulso y reconocimiento que se pretende dar a este compromiso del sector privado, así como



erregimenaren aplikazioan Bizkaiko Tributu-administrazioak hartu duen esperientziaren ondorioz.

Aldaketa horietako lehenengoan zehazten da zer erakunde hartu behar diren mezenasgoaren onuraduntzat foru-arau honen ondorioetarako, eta kategoria hori Europar Batasunean edo Europako Ekonomia Esparruan egoitza dutenei ere ematen zaie, gure araudia EBren antolamendura egokitu beharrari erantzuteko (lehen ere aipatu dugu). Mugaz haraindiko mezenasgo berri horrek berekin dakar betebeharrak formal bat, mezenasgoari onura fiskalak aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen. Betebeharrak hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu-araudiaren pean dauden eta erakunde horien aldeko dohaintzak eta ekarpenak egiten dituztenek bete beharko dute.

III. tituluko II. kapituluak dohaintza eta ekarpenen zerga-arabidea garatzen du. Kapitulu horretan izaera tekniko hutseko aldaketa batzuk sartzeaz gain, aldaketa batzuk egin dira mezenasgoaren onuradun gisa kalifikatutako erakundeen alde dohaintzak eta ekarpenak egiten dituztenek aplikatu ditzaketen onura fiskalei buruzko araudian, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Aldaketa horietarako arrazoi dira mezenasgorako pizgarri-sistema indartzea, pertsona fisiko zein juridikoek dituzten pizgarrien parekatzea eta pizgarri fiskalen

de la experiencia acumulada por la Administración tributaria de Bizkaia durante la aplicación del régimen anterior.

En el primero de ellos se determinan cuáles son las entidades que tienen la consideración de beneficiarias del mecenazgo a efectos de esta Norma Foral, ampliándose dicha categoría a las entidades sin ánimo de lucro residentes en la Unión Europea y en el Espacio Económico Europeo, en respuesta a la ya comentada necesidad de adaptar nuestra normativa al ordenamiento comunitario. Este nuevo mecenazgo transfronterizo lleva aparejado una obligación formal a efectos de la acreditación del cumplimiento de los requisitos necesarios para aplicar beneficios fiscales al mecenazgo que deberá ser cumplimentada por quienes, sometidos a la normativa tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, realicen donaciones y aportaciones a favor de las citadas entidades no residentes.

El Capítulo II del Título III desarrolla el régimen fiscal de las donaciones y aportaciones. En él, además de introducirse algunos cambios de carácter meramente técnico, se incluyen modificaciones en la regulación de los beneficios fiscales aplicables por quienes realicen donaciones y aportaciones a favor de entidades calificadas como beneficiarias del mecenazgo, a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

Estas modificaciones vienen fundamentadas por los principios de reforzamiento de la incentivación al mecenazgo, equiparación de los incentivos de que disfrutaban las personas físicas



aplikazioaren eta justifikazioaren sinplifikazioa.

Ilido horretan, batetik, 100eko 30eko kenkari bat ezarri da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotan, eta, bestetik, dohaintzen eta ekarpenen zenbatekoen gastu kengarrien izaera kendu da zerga horretatik. Gainera, 100eko 35ean parekatu dira kenkariaren aplikazioa mugatzen duten ehunekoak, erreferentzia gisa zerga-oinarria edo kuota hartuta (zergaren arabera), eta aukera ematen da muga horren gaineko gaindikinak aprobetxatzeko ondorengo bost zergaldietako autoliquidazioetan (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan). Aukera hori bazegoen, eta mantendu egingo da, pertsona juridikoen kasuan, hogeita hamar urteko epe batean.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek aplikatu ditzaketen onurei dagokienez, establezimendu iraunkor baten bidez dihardutenek aukera izango dute sozietateen gaineko zergaren zergadunentzat ezarritako kenkaria aplikatzeko.

II. kapituluaren amaieran, emari eta dohaintzak benetan egin direla justifikatzeko betebeharrak jasotzen dira, zeinak erakunde onuradunak bete behar dituen egoiliarra bada. Egoiliarra ez bada, betebeharrak horretaz gainera, justifikatu behar du onuradunak mezenasgoari onura fiskalak aplikatzeko baldintzak betetzen dituela. Bigarren kasu horretan, justifikazio-betebeharrak ekarpena egin eta onura fiskalak

y jurídicas, simplificación en la aplicación de los incentivos fiscales y justificación de la realidad de los mismos.

En este sentido, se establece una deducción del 30 por 100 en la cuota del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre Sociedades, eliminándose en este impuesto la anterior consideración como gastos deducibles de los importes de los donativos y aportaciones. Además se equiparan, en un 35 por 100, los porcentajes que limitan la aplicación de la deducción, bien tomando como referencia la base imponible o bien la cuota, según del impuesto de que se trate, y se posibilita el aprovechamiento de los excesos sobre dicho límite en las autoliquidaciones de los cinco periodos impositivos posteriores para los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas; posibilidad que ya existía y se mantiene para las personas jurídicas durante un plazo de treinta años.

Respecto de los beneficios aplicables por los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, aquellos que operen a través de un establecimiento permanente podrán aplicar la deducción establecida para los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades.

Al final de este Capítulo II, se recogen las obligaciones de justificación de la efectividad de los donativos y donaciones, que recaen en la entidad beneficiaria en el caso de que sea residente, añadiéndose a esta obligación, en el supuesto de entidades beneficiarias no residentes, la de justificar el cumplimiento de los requisitos necesarios por parte de la entidad beneficiaria para aplicar los beneficios fiscales al mecenazgo; obligaciones de justificación que



izan dituenak egingo ditu.

III: tituluko III. kapituluan, berriz, beste mezenasgo-mota batzuei aplikatu dakiekeen zerga-araubidea garatzen da. Araubide horren edukian ez dago garrantzi handiko aldaketarik, aurreko araudian xedatutakoarekin alderatuta.

Azkenik, III. tituluko azken kapitulua bi ataletan banatu da. Lehena lehentasuneko jardueratzat jotako jardueren mezenasgo-araubideari buruzkoa da. Arlo horretan, funtsean, bi berritasun nabarmendu behar dira: segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioak, eta zerga-pizgarrien konfigurazio berri bat. Konfigurazio horretan, araubide orokorra kontuan hartu da, baina onura fiskalaren hobekuntza handi bat dakar.

Ondorio horietarako, foru-arau honek eutsi egiten die jarduera mota horietarako onura fiskalei —aurreko foru-arauan arautu ziren onura horiek—, eta lehen urtero erregelamendu-mailako xedapen bidez arautzen zen arlo bat gehitzen du.

Lehenik, Bizkaiko Lurralde Historikoko lehentasunezko bederatzi jarduketa-eremuak zehazten dira, mezenasgoaren ondorioetarako; gero, haitako bakoitzaren barruan ezartzen da zer jarduera diren lehentasunezkoak modu iraunkorrean, eta zer baldintza bete behar dituzten kalifikazio hori eskatzen duten beste jarduera batzuek Eskerak egiteko prozedura erregelamenduz ezarriko den prozeduraren

en este segundo caso recaen en quienes realicen la aportación y disfruten de los beneficios fiscales.

En el Capítulo III del Título III se desarrolla el régimen fiscal aplicable a otras formas de mecenazgo, cuya contenido no presenta cambios de gran calado con respecto a lo dispuesto en la normativa anterior.

Por último, el capítulo final del Título III se divide en dos secciones. La primera está dedicada al régimen de mecenazgo de las actividades calificadas como prioritarias. Las novedades que se pueden destacar en este ámbito son fundamentalmente dos: el reforzamiento de los principios de seguridad jurídica y de transparencia y una nueva configuración de los incentivos fiscales, tomando como referencia el régimen general, aunque con una mejora sustancial en la intensidad del beneficio fiscal.

A estos efectos, la presente Norma Foral mantiene el establecimiento de los beneficios fiscales para este tipo de actividades que se regulaban en la Norma Foral anterior e incorpora una materia que, hasta ahora, se encontraba regulada anualmente por disposiciones de rango reglamentario.

Así, en primer lugar se concretan los nueve ámbitos de actuación prioritarios en el Territorio Histórico de Bizkaia a efectos de mecenazgo, para pasar después a establecer, dentro de cada uno de ellos, cuáles son las actividades que tienen esta consideración con carácter permanente, así como los requisitos que deberán cumplir otras actividades que, mediante el procedimiento que



bidez egingo da. Arauketa hori bigarren xedapen gehigarriak osatzen du; izan ere, xedapen horren bidez, aldi baterako lehenatasunezko zat jotzen diren jarduerak batzuk jasotzen dira.

Mezenasgoari emandako onura fiskalak, lehenatasuneko jarduerekin lotuta daudenak, mezenasgoaren araubide orokorrerako ezarritakoen antzera konfiguratzeko dira, baina badute pizgarri-plus bat: pertsona fisiko edo juridikoari dagokion zergaren kuota %100eko %45era gehitu da kenkaria.

IV. kapituluaren bigarren atalak artikulua bakarrik dakar, ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programei buruzkoa. Haren edukia eta lehen indarrean egon dena nahiko antzekoak diren.

Azkenik, lehenatasuneko jardueri eta ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programei dagokienez, otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 30. artikuluan jasotako elkarrekotasun-klausula urte hauetan aplikatzearen ondorioz lortu den esperientzia kontuan hartuta (foru-arau hori irabazitzeko ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da), komeni da klausula hori indargabetzea, ez baitu bete ezarri zenean lortu nahi zen xedea. Ondorioz, foru-arauaren 41. artikuluan ezarritako onura fiskalak bakarrik aplikatuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoak lehenatasuneko zat jotako jardueri dagokienez, eta betiere lurralde historikoaren araudiaren pean dauden pertsona fisikoak edo juridikoak

reglamentariament se determine, soliciten dicha calificación. Esta regulación se ve complementada por lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda, que recoge determinadas actividades a las que se confiere la calificación de actividades prioritarias con carácter temporal.

En cuanto a los beneficios fiscales al mecenazgo vinculados a las actividades prioritarias, estos se configuran de manera similar a los establecidos para el régimen general de mecenazgo con un plus de incentivación, incrementando la deducción al 45 por 100 de la cuota del impuesto correspondiente a la persona física o jurídica aportante.

La sección segunda del Capítulo IV contiene un único artículo dedicado a los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público, cuyo contenido no difiere sustancialmente del vigente con anterioridad.

Finalmente y en relación a las actividades prioritarias y a los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público, la experiencia derivada de la aplicación, a lo largo de estos años, de la cláusula de reciprocidad contenida en el artículo 30 de la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y del mecenazgo, aconseja su derogación por no haber dado una respuesta idónea a la finalidad pretendida con su establecimiento. En consecuencia, los beneficios fiscales establecidos en el artículo 41 de la Norma Foral resultan de exclusiva aplicación en relación con las actividades declaradas prioritarias por el Territorio Histórico de Bizkaia y siempre que se trate de



badira. Dena dela, Foru Arau honek ondorioak sortzen dituen eguna baino lehenagoko etorkizuneko dohaintzetarako jada formalizatuta konpromisoen kasuan iranankor araubidea ezartzen da.

IV. titulu berriaren bidez, zerga-araubide bereziaren arloko araudia egiteko teknika hobetu nahi da. Izan ere, titulu horren edukia aurreko foru-arauan bazegoen araututa, baina sistematika desberdin batekin. Haren I. kapituluaren zenbait manu sartu dira, lehen xedapen gehigarri ugari biltzeko. Bestalde, II. kapituluaren arautzen da zer ondorio izango dituen foru-arau honen 5. artikuluko baldintzak ez betetzeak, mezenasgoari emandako onura fiskalak aplikatu dituztenentzat.

Amaitzeko, lehenengo xedapen iragankorrak zenbait informazio-betebehar ezartzen dizkie foru-arau hau indarrean jartzen denean otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren II. tituluko zerga-araubide berezia aplikatzen ari direnei (foru-arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da). Informazio-betebehar horiek bete beharko dituzte zerga-araubide berezia aplikatu ahal izateko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatua betetzeko, memoria

personas físicas y jurídicas sometidas a la normativa tributaria del mismo. No obstante, se establece un régimen transitorio para los compromisos de aportaciones futuras suscritos con anterioridad a la fecha de efectos de esta Norma Foral.

La incorporación del nuevo Título IV responde a una mejora en la técnica de la elaboración normativa del régimen fiscal especial, ya que su contenido se encontraba regulado en la Norma Foral anterior, aunque con una sistemática diferente. Así, en su Capítulo I, tienen cabida preceptos que quedaban anteriormente recogidos a lo largo de un número considerable de disposiciones adicionales. Por su parte, el Capítulo II regula las consecuencias para quienes disfrutaban de los incentivos fiscales al mecenazgo derivadas del incumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 5 de la Norma Foral por parte de la entidad beneficiaria.

Para concluir, cabe indicar que la Disposición Transitoria primera establece determinadas obligaciones de información que, para la aplicación del nuevo régimen fiscal, deben cumplimentar las entidades que, en el momento de la entrada en vigor de la presente Norma Foral, estuvieran aplicando el régimen fiscal especial establecido en el Título II de la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de



ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Bizkaia, acompanyan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

I. TITULUA

XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Xedea.

1. Foru araua honen xedea da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea arautzea, haien funtzio soziala, jarduerak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

2. Halaber, mezenasgorako emandako zerga-pizgarriak arautu nahi dira. Foru arau honen ondorioetarako, interes orokorreko jardueretako partaidetza pribatua da mezenasgoa.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 2. artikuluan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 2. artikuluan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 1. artikuluan xedatutakoa dela bide, foru arau honetan xedatutakoa Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudiari lotuta

TÍTULO I

OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1. Objeto.

1. La presente Norma Foral tiene por objeto regular el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos atendiendo a su función social, actividades y características.

2. Asimismo, tiene por objeto regular los incentivos fiscales al mecenazgo. A efectos de esta Norma Foral, se entiende por mecenazgo la participación privada en la realización de actividades de interés general.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

1. Lo dispuesto en la presente Norma Foral será aplicable a los y las contribuyentes a los que resulte de aplicación la normativa tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en virtud de lo dispuesto en el artículo 2 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, en el artículo 2 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el artículo 1 de la



dauden zergadunei aplikatuko zaie.

2. Foru arau honetan aurrez ikusten ez den guztian, aurreko zenbakia aipatutako foru-arauek aplikatuko dira.

3. Foru arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko banku-fundazioei, haien araubide berezia aplikatuko baitzaie.

Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

2. En lo no previsto en esta Norma se aplicarán las Normas Forales a las que se refiere el apartado anterior.

3. En ningún caso será de aplicación lo dispuesto en la presente Norma Foral a las fundaciones bancarias, que se regirán por su régimen específico.

II. TITULUA

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ARAUBIDE BEREZIA

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

4. artikulua. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Foru arau honen ondorioetarako, irabazi-asmorik gabeko erakundetzat hartuko dira hauek, betiere hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

a) Herri-onurakotzat jotako fundazioak eta elkarteak, Espainiako lurraldean egoiliar direnak, baita horien federazioak eta elkarteak ere.

b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren erakundeak, lurralde horretan establezimendu iraunkor baten bidez jarduten dutenean eta a) letran aipatutako erakundeetako baten antzeko

TÍTULO II

RÉGIMEN FISCAL ESPECIAL DE LAS ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS

CAPÍTULO I

NORMAS GENERALES

Artículo 4. Entidades sin fines lucrativos.

Se consideran entidades sin fines lucrativos a efectos de la presente Norma Foral, siempre que cumplan los requisitos establecidos en el artículo siguiente:

a) Las fundaciones y las asociaciones declaradas de utilidad pública residentes en territorio español, así como las federaciones y asociaciones de las mismas.

b) Las entidades no residentes en territorio español que operen en el mismo a través de un establecimiento permanente y que tengan una forma jurídica análoga a alguna de las previstas



forma juridikoa dutenean.

Kanpo geratuko dira paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean egoiliar diren erakundeak, salbuespen honekin: Europar Batasuneko estatu kide bat izatea, eta, gainera, egiaztatzea erakundeak arrazoi ekonomiko baliozkoak dituela eratzeko eta jarduteko.

c) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean egoiliar diren erakundeak, Espainiak estatu horrekin zergei buruzko benetako informazio-trukea duenean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian ezarritakoaren arabera, baldin eta Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe jarduten badute eta a) letran aipatutako erakundetako baten antzeko forma juridikoa badute.

